

## Naguskeria

*Euskaldunon Egunkaria*, 1992-07-22: 2.

Berandu nator nire astearteko gunetxo honetara, gaixotasun arin bat dela kausa; poltsikoan geratu zitzaidan fotokopiatxo bat itzuli zain honela, berandu, eskuetara. Orain egun batzu erantzun banio, beroxeago joango zitzaion mezu hau; halere, ez nintzaion osorik hasarretuko, zoritxarrez ohitu egin gara purruztadetara. Dirudienez, gipuzkoar guztiona den Diputazioari aldrebeskeria baten bitartez kendu zaizkio EUSKALDUNON EGUNKARIArentzat hain beharrezko zitzaizkion 50 milioi pezetako laguntza. Eta artikulua egilea gehien mindu duena, zera da, naguskeria baten bitartez izan dela dirutza hau denona den Diputazioari (Diputazio Amari Iztuetak esango lukeen bezala) kendua, eta gutxienez ausarta den harri bat bota duena, ez da ohartu zein harrobitik egiten ari den jaurtiketa. Zeren eta Gipuzkoan gaur agintzen dagoen Aldundi Nagusia bera da sorreratik naguskeria bidez gorakariei esker horrera goratu dena. Eta bertan irauteagatik irtengabeko naguskeriak, arbitraltasunak, egiten ari dena. Egunkari honek izango ditu hutsak, hemendik edo handik begiratzen jarriz gero, baina inork ezin dio uka herriaren inizatibaz eta honen diru-laguntzaz eta beronen eguneroko erosketa bidez bizi denik. Eta "naguskeria" hau bada Kulturako arduraduna hainbeste mindu duena, honez gero minez jota egon behar luke. Eta ez dago. Osasuna desio diot neuk, ez gaitzik, baina osasuntsu bizi den Kultur arduradunak behar lituzke kontu handiagoz erabili hitzak harriak bezala jaurtitzerakoan, bestela hitz hauen *boomerang* efektuak kalteratu dezake.